

Heri Aldizkaria  
**Otamotz**

1998ko urria 41. alea

**Juanjo Sagastibeltza:**  
“Hamabost urte hauetan bertso  
eskolak lagun asko eskeini dizkit”



ENTZUTZAKO  
**ZINTZU  
MINTZU**  
ELKARTEAK

**ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA**



# 206



**HEG ALDE AUTO**

**MUGITEGI, 27**  
☎ **943 72 51 37**

**URRETXU**  
**943 72 58 64**

**ZERBITZU  
OFIZIALA**







1948. urtean Galeperra elkartearen ateratako argazkia.  
 Zutik: Vitoria (Urretxuko udaletxeko irakaslea), Txintxurreta, Maria Jesus Urrestilla, Conchi Gabilondo, Rosarito Apaolaza, Villar Retes eta Miren Mazkieran.  
 Eserita: Nekane Gabilondo eta Miren Txintxurreta.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.  
 Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.  
**Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318  
 Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



*Mutua General de Seguros*

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel: 722599

## MVRVA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
 Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
 Golden plazoletan

## BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans  
 LONDON



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

Eskulanetarako eskaioia, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 © 943 721420  
 URRETXU

# UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 720215  
 S. Esnaola, 2

Faxa: 943 725291  
 ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
 ☎ 943 726274  
 ZUMARRAGA





## Agiñako eliza berrizatzeko bidean

Zumarragako Udala, Donostiako Gotzaintza eta Agiñako Oleta elkarteak bertan dituen ondasunak dirala eta akordio batera heldu dira. Eliza, ondoko bolatokia eta 540 metro karratutako lursailak gotzaintzarenak dira. Hauetan zenbait berrikuntza burutu behar dira: bolatokia eraitsi, eliza teilaberri eta laxkak ordezkatu, iparraldeko horman teilategia eraiki eta atzealdeko horman dagoen pitzadura konpondu.

Lursaila, moldaketa batzuk egin ondoren, aparkaleku eta egonleku gisa erabiliko da. Hemen haurrentzako lekua jarri eta Oleta elkartera zein hilerrira doan bidea hobetuko da.

Zumarragako Udaleko Bulego Teknikoak sei milioi bostehun eta hiru mila pezetatako aurrekontua egin du. Zumarragako Udalak 3.500.000 pezeta jarriko ditu. Gotzaintzak, berriz, milioi bat pezeta emango du eta bolatokiaren eraisketak libre utziko duen lekua eta ondoko lursaila Udalarik emango dizkio. Burutu beharreko lanak Agiñako bizilagunek auzolanean egingo dituzte eta oraindik zehaztu gabeko dirulaguntza ere jarriko dute.



## San Martin jaiak Agiñan. Egitaraua:

### **Azaroak 11, astezakena (San Martin eguna)**

Eguerdiko 12etan: Meza San Martin elizan, auzoan hildakoen alde.

Eguerdiko 2etan: herri bazkaria nahi duten guztientzat trikitilariekin.

Iluntzeko 8etan: buzkantza eta ardiki jana nahi duten guztientzat.

Ondoren, goizalderarte erromeria Balzola anaiak trikitilariak soinua jota.

### **Azaroak 14, larunbata**

Arratsaldeko 5etan: San Martin txerria hil eta buzkantza erakusketa, lehengo erara.

Iluntzeko 8etan: afariak emango dira gose direnentzat.

Ondoren, erromeria goizalderarte Joseba Iparragirre eta bere taldeak soinua jota.

### **Azaroak 15, igandea**

Goizeko 11etan: San Martin elizan meza nagusia.

Eguerdiko 12etan: herri kirolen erakusketa.

Eguerdiko 1etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak.

Eguerdiko 2etan: bazkaria, trikitilari eta bertsolariekin.

Arratsaldeko 6etan: bertsolarien bigarren saioa.

Egun guztian zehar "Olarke" anaiak trikitilariak arituko dira.

## Bertso paper lehiaketa


XIV. bertso paper lehiaketaren sari banaketa ere urrian izan da. A mailan 6 partaide aurkeztu dira eta B mailan, berriz, 4. A mailan bi beasaindar nagusitu dira. Irabazlea, "Oroitzapenetan aske" izenburua duen lanarekin, Ekaitz Goikoetxea izan da eta bigarrena Iker Zubeldia "Txapelketaren haritik kulunkan" lanarekin.

B mailan garailea Joseba Barandiaran legazpiarra izan da, "Irlandako oihartzuna" lanarekin eta bigarrena herriko bertso eskolako partaide den Gorka Ojanguren "Txikitako lagunik onena" izenburua duen bertso-paperarekin.

## Minerologia eta paleontologiari buruzko XI. astea ospatu da Urretxun

Aurtengo edizioak herriko leku ezberdinetan sakabanaturik egon diren ekitaldi ugari izan ditu. Urriaren 24an Araba eta Nafarrora txangoa egin zuten fosil moeta ezberdinak biltzeko. 26, 27 eta 28an Materia eta energiari buruzko hitzaldi zikloa izan zen José Girbau adituaren eskutik. Ekintza nagusiak asteburuan izan dira eta arrakasta itzela izan dute, 20.000 pertsona inguru hurbildu baitira ekintza ezberdinak ikustera. Urretxuko Kultur Etxean museoa, landutako harri bitxiak bilduma eta fosil bilduma izan ditugu ikusgai. Iparragirre plazan, berriz, feria irekia izan da. Bestalde, frontoiaren kanpoaldean ekintza ezberdinak egon dira jendearen partaidetza suspertu asmoz. Honela eskalada, urrebiltzaileen jokoa eta meategia izan dira; haurrek mineralogiaren munduan modu dibetigarrian hasteko aukera izan dutelarik.

Hala ere, aurtengo astearen kokagune nagusiak Urretxuko frontoia eta Garaialde Lizeoa izan dira. Frontoian 32 erakustoki izan dira ikusgai eta bertan zaletuek euren bildumako aleak saldu, erosi eta aldatzeko aukera izan dute. Honela, Euskal Herriko eta kanpoko zaletu ugari hurbildu dira, euren bildumak aberastu asmoz. Garaialde Lizeoko mineral eta fosil erakusketa oso berezia izan da. Javier Aguado antolatzailearen esanetan bertan izan ditugunak Urretxun berriz ikustea oso zaila izango da. Izan ere, 220 kiloko amatista geodak eta 180 milioi urteko 100 kiloko harri bihurtutako enborrak izan dira ikusgai.





# TXIKIMOTZ

## ESKOLA KIROLAREN IX. GEHIGARRIA

Urriaren 17an hasi zen beste urte batez, Urretxu Zumarraga eta Legazpiko ikastetxeen arteko eskolarteko kirol txapelketa berri bat. Txapelketak datorren urteko maiatzera arte irarungo du, eta aurtengo ikasturte honetan, hainbat kirol egiteko aukera izango dituzue, pilota, eskubaloia, saskibaloia, atletismoa, futbol 7 eta abar. Eta kirol hauek burutzen dituzuen ihardunaldietan hor izango gaituzue gu **TXIKIMOTZ** gehigarria egiten dugun guztiok hilero gertatzen denaren berri zuei eskaintzeko asmoz.



## TXISTEA

- Aurreratzen ari naizen diruaz -esaten du zoro batek-, motorra erosiko diat.
- Nik berriz, -esaten dio lagunak-, behia erosiko diat.
- Barregarri egongo haiz behi gainean errepidean lasterka.
- Eta hi, motorrari esnea eraisten hasten haizenean?



# ESKOLA KIROLA

## BENJAMIN MAILA

### Futbol 7 (98-10-17)

Ikastola A - La Salle A	5 - 5
Gainzuri A - Gainzuri B	14 - 0
Ikastola C - La Salle B	6 - 1
Gainzuri D - Ikastola B	4 - 1

## ALEBIN MAILA

### Eskubaloia. Neskak 5.maila (98-10-17)

Ikastola A - Haztegi A	1 - 3
La Salle A - D. Agirre	11 - 4

### Eskubaloia. Neskak 5.maila (98-10-24)

Ikastola A - La Salle A	3 - 7
D. Agirre - Haztegi A	11 - 4

	J	I	B	G	Pt
1.-La Salle A	2	2	0	0	4
2.-Haztegi A	2	1	1	0	3
3.-D. Agirre	2	0	1	1	1
4.-Ikastola A	2	0	0	2	0

### Eskubaloia. Mutilak 5.maila (98-10-17)

Ikastola A - Gainzuri A	5 - 9
La Salle B - Ikastola B	4 - 4

### Eskubaloia. Mutilak 5.maila (98-10-24)

Ikastola B - Gainzuri A	1 - 8
La Salle A - Ikastola A	5 - 5

	J	I	B	G	Pt
1.-Gainzuri A	2	2	0	0	4
2.-La Salle A	2	0	2	0	2
3.-Ikastola A	2	0	1	1	1
4.-Ikastola B	2	0	1	1	1

### Eskubaloia. Neskak 6.maila (98-10-17)

Ikastola B - Haztegi B	3 - 5
Gainzuri - La Salle B	3 - 5

### Eskubaloia. Neskak 6.maila (98-10-24)

Haztegi B - Gainzuri	7 - 3
La Salle B - Ikastola B	3 - 10

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi B	2	2	0	0	4
2.-Ikastola B	2	1	0	1	2
3.-La Salle B	2	1	0	1	2
4.-Gainzuri	2	0	0	2	0


### Eskubaloia. Mutilak 6.maila (98-10-17)

Ikastola C - Haztegi D	4 - 6
Gainzuri B - Haztegi C	8 - 11
La Salle B atsedena	


### Eskubaloia. Mutilak 6.maila (98-10-24)

Haztegi C - Ikastola C	6 - 3
La Salle B - Gainzuri B	4 - 9
Haztegi D atsedena	

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi C	2	1	1	0	3
2.-Gainzuri	2	1	0	1	2
3.-Haztegi D	1	1	0	0	2
4.-Ikastola C	2	0	1	1	1
5.-La Salle B	1	0	0	1	0







# ESKOLA KIROLEKO EMAITZAK

## INFANTIL MAILA

Eskubaloia. Mutilak  
(98-10-17)

Ikastola - Haztegi A	0 - 0
Haztegi B - Iparragirre	4 - 13
Olazabal - Haztegi C	6 - 8
La Salle atsedena	

Eskubaloia. Mutilak  
(98-10-24)

Iparragirre - Ikastola	14 - 5
Haztegi C - Haztegi B	20 - 7
La Salle - Olazabal	5 - 15
Haztegi A atsedena	

	J	I	B	G	Pt
1.-Iparragirre	2	2	0	0	4
2.-Haztegi C	2	2	0	0	4
3.-Olazabal	2	1	0	1	2
4.-Ikastola	2	1	0	1	2
5.-Haztegi B	2	0	0	2	0
6.-La Salle	1	0	0	1	0
7.-Haztegi A	1	0	0	1	0

## INFANTIL MAILA

Saskibaloia. MUTILAK  
(98-10-17)

Ikastola - La Salle	23 - 6
Haztegi A - Haztegi B	8 - 29
Olazabal - Iparragirre	18 - 15

Saskibaloia. MUTILAK  
(98-10-24)

Ikastola - Iparragirre	36 - 2
La Salle - Haztegi A	8 - 11
Haztegi B - Olazabal	33 - 13

	J	I	B	G	Pt
1.-Ikastola	2	2	0	0	4
2.-Haztegi B	2	2	0	0	4
3.-Olazabal	2	1	0	1	3
4.-Haztegi A	2	1	0	1	3
5.-La Salle	2	0	0	2	2
6.-Iparragirre	2	0	0	2	2

## INFANTIL MAILA

Futbol 7. Neskak  
(98-10-17)

Ikastola A - La Salle	14 - 1
Haztegi C - Haztegi B	5 - 2
Haztegi A - Olazabal	3 - 3
Ikastola B - Iparragirre	3 - 10

	J	I	B	G	Pt
1.-Ikastola A	1	1	0	0	3
2.-Iparragirre	1	1	0	0	3
3.-Haztegi C	1	1	0	0	3
4.-Olazabal	1	0	1	0	1
5.-Haztegi A	1	0	1	0	1
6.-Haztegi B	1	0	0	1	0
7.-Ikastola B	1	0	0	1	0
8.-La Salle	1	0	0	1	0



## Galderak

- 1-Zer espero dezute denboraldi berriaren hasierarekin?
- 2-Zenbat entrenamendu egiten dituzue astean?
- 3-Zenbatgarren urtea da eskola kiroleko begirale bezala zabilatzatela?
- 4-Nola prestatzen dituzue entrenamendu saioak?
- 5-Gogorra egiten al zaizue ume txikiei erakustea?
- 6-Asko haserretzen al zarete umeekin?

1-Nire asmoa umei kirola egiten erakustea da. Jolasean aritu eta nahiz eta galdu ez dela haserretu behar irakastea.


2- Bi, bakoitza ordu batekoa.

3-Hau nire bigarren denboraldia da.

4-Eskola kiroleko ikastaroetan ikasitakoarekin eta han eman ziguten fitxategian begiratu.

5-Kasu gehiegirik ez dute egiten eta atentzioa deitu behar izaten diet.

6-Haserretu baino gehiago kasu egiteko bronkaren bat botatzen diet.



**Yobana Aramendia**  
Gainzuri ikastetxeko begiralea.

1-Jendeari eskubaloia zer den erakustea eta aldi berean kirola egiten disfrutatu dezatela.


2-Astean bi entrenamendu saio izaten ditugu.

3-Begirale bezala bigarren urtea dut, baina Iparragirre institutoan lehenengoan lehen La Sallen egon bait nintzen urtebetez.

4-Aurretik pentsatuta izaten ditugu, guri irakusten digutena modu lasaiago batean irakasten diegu, koordinazioa lantzen dugu batez ere hauekin.

5-Nahiko erraz ikasten dute pazientzi piska bat eduki ezkeru

6-Bronka batzuk bota beharra dago errespetuan sartzeko, baina bestela oso ondo.



**Asier Segurola**  
Iparragirre institutoko begiralea



**Yoana Garcia-Gil**  
Gainzuri ikastetxeko begiralea.

1-Umeak ondo pasa dezaten saiatuko gara, eta aldi berean zerbait ikasi dezatela.

2-Astean bi egun izaten ditugu bakoitza ordubete ingurukoa.

3-Begirale bezala nabilela hirugarren urtea dut hau.

4-Aurretik planifikatuta eramaten ditugu entrenamenduak, horri batean dena zehazturik eramaten degu gero ez ahazteko.

5-Ez gogorregia ez, baina batzutan nekatuta eta kokoteraino bukatzen degu.

6-Ez, bat edo bi gaizki portatzen dira, baina onak dira.



**Miren Begiristain**  
U.Z. ikastolako begiralea.

1-Umei kirola egiten irakastea, eta aldi berean niri beraiengandik zerbait ikastea gustatuko litzaidake.

2-Bi, bakoitza ordu batekoa.

3-Hasi berria nahiz lehenengo urtea bait dut.

4-Ikastaroetan irakatsitako erabiltzen saiatzen naiz. Eta horretaz gain niri bururatutako ariketak ere erabiltzen ditut entrenamenduetan.

5-Dena taldearen arabera izaten da. Baina ez da oso gogorra izaten pazientzia piskat izan ezkeru.

6-Momentuko garrasiak izaten dira, baina erraz ahazten diren hoietakoak.



**Alba Anton eta Miriam Sevillano**  
La Salle ikastetxeko begiraleak

1-Gure asmoa bien artean ahal degun guztia irakastea da eta aldi berean umeek ere guri erakutsi diezaguten.

2-Bi egunetan izaten ditugu entrenamenduak, lehenengo egunean ordubetekoa eta bigarrenean zerbait luzeagoa ordu eta erdi ingurukoa.

3-Biontzat lehenengo urtea da.

4-Ikastaroetara joaten den jendearekin hitzegiten degu, eta haiek emandako ideiekin eta guri bururatzen zaigunarekin moldatzen gara.

5-Bai, ez bait dute kasu gehiegirik egiten eta beraien artean erraz haserretzen direlako.

6-Ez, ez gara haserretzen, hitzeginez konpontzen ditugu arazoak.




## Zergatik ematen dira emakumeenganako tratu txarrak?



### Pilar Colado

Etxe bakoitza ezberdina da. Emakumeei laguntza eskeini beharko litzateke etxetik joan ahal izateko eta senarra gartzelara sartu.




### Gorka eta Gorka

Kasu bakoitzean arrazoi ezberdinak egongo dira. Gizartea bestela ere nahiko matxista da. Konponbidea bikoteen arteko komunikazioa lantzea da.



### Leire Hernandez

Beraien emazteak jotzen dituzten senarrak tontoak direlako. Kartzelan sartu beharko lirateke eta betirako han utzi.




### Edurne Fernandez

Leireekin erabat ados nago. Ez dago inondik inora ulertzerik portaera hori. Emakumeak jotzen dituzten gizonak zoratuta daude eta euren zigorra jaso beharko lukete.



### Nagore Murua

Emakumea jotzen duen gizona ezin da burutik ondo egon. Ez dago irtenbide argirik, bakoitzaren ezaugarrien arabera neurriak hartu beharko lirateke bergizarteratzea lortzeko.



### Jose Mari Nestar

Ez dut ulertzen nola eman daitezkeen tratu txarrak familietan. Ez dut uste konponbidea gartzela denik, beste bat aurkitu behar litzateke.

# BIONA


## AROTEGIA

### Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 **kutxa** fundazioa  
fundación

# EDYRNE

## JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



*Lanbasa*

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



## Keros

Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



# Atondu, garai bateko jantzi zibilaren oroitzapena

1985. urtean Ikerfolk deritzan folklore ikerketa erakundea sortu zen. Talde hau osatu zuten partaideek Argia Euskal Dantzari Taldeak 1965. urtetik aurrera egini-ko ikerketa ondarea bildu zuten. Ikerketa lan hauen oinarria dantza emankizunetatik at lan egiteko zen. Ordutik hona lan handia egin dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean, folkloreaken arlo guztiak jorrazuz.

Ikerfolken saileak aurki ditzakegu arlo bakoitzari egokiturik: ikastaroak (dantza, soinutresnak...), kontzertuak (Udazkenean Folk), diskak, liburuen argitalpen eta itzulpenak, bideoak... Sail hauetako bati Atondu izena eman zioten eta 1992. urte arte, batik bat dantza taldeen aholkularitza eta hitzaldiak zen bere zeregin nagusia.

Urte honetan, ordea, Atondu sailak bere lana kaleratzea erabaki zuen. Dantza taldeekin lan egiteaz gain, jantziaren inguruan informazioa behar zuen edonori euren lanaren emaitza zabaltzeari ekin zioten.

Atonduk "jantzi zibila" deritzanaren inguruan finkatu du batik bat bere lana eta orokorrean "baserritar jantzia" deritzana garai batean nolakoa zen kontutan izanik eredu berriak sortu dituzte. Izan ere, jantzeko izan dugun berezko era joan den gizaldiarekin batera galdu genuen eta Piriniotako alderdian bakarrik gorde da. Geure zaharrak eta baserri giroan bizi zirenak izan ziren joan den gizaldiaren amaie-



Atonduk euskaldunok berezko genuen janzkera ikertu eta diseinuak egiten ditu.

ran, jazerari dagokionez, usuarioari eutsi zioten bakarrak eta horregatik egun Olentzero, Santa Ageda, Euskal Jai eta abarretan bertako betiko janzkera erabiltzen dugunean baserritar edo amona jantzia jantzen dugula esateko ohitura dugu.

Azken urte hauetan honela jantzeko nahia eta beharra mantendu bada ere, askotan duintasuna galdu eta mozturro izatera heldu da. Atonduren ikerketek joan den mendera arte berezko genuen janzkera berreskuratu eta duintasuna mantendu nahi izan dute.

Ikerketa horien guztien emaitzen ondorioz 300 jantzi inguru diseinatu dituzte, bakoitza bere ezaugarri bereziekin, baina

Euskal Herriko berezko janzkeraren ezaugarriak errespetatuz, noski. Urte guzti hauetan zehar Atonduri jantziaren diseinu eskaera egin diotenen artean Lourdesko Ama ikastolako zenbait irakasle ditugu. Ondoren, guraso, ikasle eta beste zenbait-tek ere jantzi eskaera egin zuten.

Hitzaldiren bat antolatu edo jantziaren bat diseinatzea nahi baduzue, honako hauek dira euren helbide eta telefonoak: Ikerfolk, Atondu saila (Ane Albisu): Iparagirre, 8-2. DONOSTIA  
☎ 943 29 17 47- faxa: 943 29 13 45

☎ 72 42 55  
Legazpi, 14  
ZUMARRAGA

**ecu**

☎ 43 19 72  
Getaria, 18  
DONOSTIA

**IKER**

SUKALDE ERAKUSKETA

**FAGOR**

Udala Enparantza, z/g  
Tel.: 943 / 79 00 43  
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5  
Tel.: 943 / 72 50 75  
20700 URRETXU



# Juanjo Arozena Pildainen omenez

Gizon handi bat joan zaigu. Ez naiz, ez, bere gorputzaren tamainaz hitz egiten ari -txikia ez izan arren-, Juan Jose Arozena Pildain, bestela zen gizon handia eta eskuzabala. Nik orain dela lau urte besterik ez nuen ezagutu. Bizitzak, -nahigabe edo nahita- elkartu gintuen, egitasmo amankomun baten inguruan, herri honen historian arakatzeko grina berberak elkartu gintuen alegia, eta geroztik harreman estua izan genuen. Beren etxeko atea ireki zizkidaten Juanjok eta Gloria bere emazteak, eta ordu luzeak eman genituen berak oroimena astintzen eta nik gure herri hau gertuagotik ezagutzen. Harreman horren emaitza, bi herriotako II. Errepublika eta Gerra Zibila garaiko testigantza, hein batean, jasota utzi duen liburua izan da.

Harreman hark, Juanjo bestela ere eza-gutzeko aukera eman zidan. Hasieratik txunditu ninduten herri honen historia eta galdutako oroimena berreskuratzeko eta ikertzeko agertu zidan grinak eta konpromezuak, baita Euskal Herriko historia ezagutzen jarraitzeko zaletasunak ere. Hirurogeita hamar urte beteta izan arren, bere gaztetasunaren adierazgarri zen. Berehala konturatu nintzen, jarrera hori ez zela debaldekoa, eta ez zela liburu baten argitalpenean amaitzen; herriaren alde asko lan egindako zela jakin nuen: udaletxean, sindikatuan, lan-tegian, alderdi politikoan, kultur ekimene-tan... Azkeneko aldiz ikusi nuenean, euskaraz elkarlanean argitaratutako liburu-a poliki-poliki gaztelerara itzultzen eta aldi berean bere euskara apala hobetzeko ahaleginetan zebilela esan zidan.

Ospitalean topo egiteko aukera izan genuen halako batean, bere bihotza begiratzera zihoan. Iruditzen zait bere ajeei ez ziela jaramon handirik egiten; gizon baikorra zen, bizinahia zuen eta eguneko ordu guztiak aprobetxatu nahi izaten zituen urteetan beste lan batzuk egiteagatik baztertu zituen zaletasun eta lanetan aritzeko. Poztu nintzen -halako albisteak poztu badezake...-, inongo sufrimendurik gabe, lasai, emazteari hitz egiten zion bitartean, ohean hil zela jaki-


tean. "Nolako bizitza, halako heriotza", pentsatu nuen nere artean. Eta irudipena daukat Juanjok beste mundurako bidea bakean, larritasunik gabe egin duela.

Hileta elizkizunean, erretoreak gogor-razazi zigun, Juanjok esan ohi zuela, pertsona baten bizitza liburu bat bezalako-a dela, eta heriotza, liburua idazten amaitzean etortzen dela. Esaldi horrek gure liburua ekarri zidan gogora, hala nola Juanjok bere bizitzan zehar ihar-duera ezberdinetan idatzita utzi dituen herri honetako historia osatzen duten beste horrenbeste. Lerro hauen bitartez, Juanjok borondatetsu idatzitako pasarte horiek guztiak ekarri nahi ditut gogora, eta bide batez, Gloria, bere emazteari eman nahi dizkiot eskerrak. Juanjok bere bidea egiten lagundu zion emazte pres-tua izan zuela uste dut.

Pentsatu nahi dut, Juanjo, beti ere horren gertu izan zituen Gerra Zibilean hildako bizilagunen artean dagoela dagoeneko. Ziur nago besoak zabalik, haien oroimena berreskuratzeagatik eskerrak emanez hartu dutela. Horren estima handitan zituen belaunaldi hartako gizon-emakumeen artean, orain dela hirurogeita bost urteko mutil kozkor jostaria bihurtuta, aitari batzoki zaharrera laguntzen irudikatzen dut, Gernikako Arbola enparantzako zezen-plazara bandako musikarien artean ezkutuan sartzen, La Salleko fraideek antolatzen zituzten prozesio haietan desfilatzen, frontoian euskal dantzak ikasten... Nik horrela gogoratu nahi dut Juanjo, bera beti sentitu izan baitzen belaunaldi eta historia haren partaide.

Eskuminak, Juanjo, dagoeneko gure artean ez dauden eta herri honen historia egin duten urretxuar eta zumarragar xume guztiei, zuk erakutsi zenidan eta, hildakoak gure egunerokotasunean zein bizirik dauden gehienetan. Zu ere horrela egongo zara aurrerantzean gure artean.

**Antxiñe Mendizabal Aranburu**



**RENEDO** argazkiak

Jaurantzak • Bataioak • Ezkontzak

Labeara 52-54 F 20700  
URRET XU

☎ 725682  
722292



**MAPFRE**

**Aseguru etxea**

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA

**GORETTI**

JANTZIDENDA

**MODAKO  
ARROPAK**

Secundino Esnaola, 34 ☎ 943 724996



**ALTZARIAK**

**MERKA - UROLA**

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 725828  
20700 URRET XU



# Hurtzaindegiaren lehen urratsak

Betidanik Pagoetako "eskolagorria" deitu izan diogunak aldaketa nabarmena ezagutu du. Aspaldi honetan erabili gabe zegoen eraikuntza hau txukundu eta egokitu ondoren, jostailuz, seaska eta haurren bizitasunez gainezka ageri da. Familia askotan bi gurasoek etxetik kanpo lan egiten dute eta haurrak konfiantzazko hezitzaileen eskuetan uzteko premia geroz eta nabariagoa zen. Hau dela eta, mankomunitateak, ikastolaren babespean eta Urretxuko udalak utziriko eraikuntzan, hurtzaindegia sortu du. Haurrekin hilabete igaro ondoren, bertako hezitzaileek badute zer kontatu.

## Zer nolako harrera izan du hurtzaindegiak?

Oso harrera ona izan du, gurasoak aspalditik ari ziren hurtzaindegi bat eskatzen eta zabaldu denean igerrri dugu. Momentu honetan oraindik urtebete ez duten 5 haur ditugu, urtebeteko 8 eta bi urteko 50etik gora. Kontuan izan behar da mankomunitate mailakoa dela, hau da, Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragak famulientzako zerbitzua dela.

## Haur gehiagorentzat lekuri ba al dago?

Bai, bi urteko 60 haur, urtebeteko 16 eta hilabeteak dituzten 10 haurrentzat prestatu dago. Gainera, aurrealdean dugun estalkiari hormak erantsi behar dizkiogu eta honela, leku gehiago izateaz gain, egu-



0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzen dituzte hurtzaindegian

raldi ona egiten duenean kanpoaldean ere jolastu ahal izango dute haurrek.

## Zenbat hezitzaile zaudete?

Momentu honetan 5 hezitzaile gaude haurrez arduratzen. Bostok arlo honetan ikasiak eta lanean arituak gara, beraz badakigu ume hauek nola hezi eta zaindu. Gainera guztiok ere jarraipena izango dugu, honela haurrak sakon ezagutu eta bakoitzaren beharrak jakin eta asetzeko aukera izango dugu.


## Zeintzu dira zehazki hurtzaindegia-

## ren eginbehar eta helburuak?

Hasteko, gurasoei euren seme-alabak etxean bezain ondo zaintzeko aukera eskaintzen diegu: jateko eta lotarako orduak, garbitasuna... bestalde, hurtzaindegiko ateak zabalik daude gurasoentzat. Hau da, goizeko 7:30etatik arratsaldeko 18:30ak arte hurtzaindegia gurasoen lan ordutegira moldatua dago. Ondo datorkienean ekar dezakete haurra eta ondoren lanak uzten badie bisita egitera etor daitezke, jaten ematera... Bestalde, estimuletarako proiektu baten inguruan antolatuta dago. Umearen sozializazioan laguntza paregabea eskaintzen du. Izan ere, egun ume gehienek ez dute anai-arrebarik eta eskolan hasi arte ez dute gainontzeko umeekin elkarbizitzeko aukerarik. Hemen besteekin erlazionatzen eta elkarbizitzen ikasten dute.

## Nolakoak izan dira lehen egun hauek?

Gu oso gustura gaude eta haurrei ere hala daudela nabaritzen zaie. Urduri ageri direnak gurasoak dira, haseran gogorra egiten baitzaie umea etxetik kanpo uztea. Baina haurrak berehala moldatzen dira giro berrira, gurasoak etortzen direnean pixka bat aztoratzen diren arren. Hau dela eta, gurasoek gelatik gelara dauden leihoetatik haurrak zein gustura dauden ikusteko aukera dute.



Jahi adina jolas egiteko aukera dute haurrek



# Stiff, txapelketako txakurra

**Ezkio -Itxasoko Izar-Gain etxeko familiak zaintzen du "Stiff de korosti", Belgikako Groenendael arrazako artzai txakurra. Ekainaren 2an 3 urte bete zituen txakur honek, besteak beste, Espainiako txapeldun titulua du.**

Izar-Gaineko familia, ez zegoen hasiera batean oso konbentzitua mota honetako txakur bat izatearekin. Stiff izan aurretik ordea, Zaragozako lehiaketa bat ikustera joan ziren eta bertako giroa gogokoa zutela ikusita, txakurra erostea erabaki zuten.

Arraza honetako txakur batek, 80.000 pezeta inguru balio ditzake. Zainketak, ez dira garestiegiak, albatariari egin beharreko bisitetaz eta eguneroko janariaz arduratu beharra dago.

Hiru hilabete zituenetik larunbat arratsaldetan pare bat orduz Legazpira joaten dira txakurrari behar bezala irakasteko. Bi zatitan banatutako saioa egiten dute: Obedientzia lantzen dute alde batetik. Jabeek emandako aginduak betetzea eta gainontzeko txakurrekin arazorik gabe egotea izaten da lehen saio honen helburua. Bigarren zatian berriz agresibitatea lantzen da. Atal honetan, txakur bakoitzak bere izaera agertzen du eta era berean, lasaitzea ere lortzen da.

Nahiz eta txapelketetan ibili, mota honetako txakurrek ez dute zainketa berezirik behar. Stiffen kasuan, ile luzea duenez, noizbehinka orraztu beharra dago. Garbitu ordea, ez dute askotan garbitzen, ilearentzat, ez baita oso ona. Gainera, ez da asko zikintzen den txakur mota eta orraztearekin, nahikoa izaten da. Pentsua jaten du, elikadura orekatua delako eta ilearentzat ere hobea.

## Sari ugari jaso ditu

Zortzi hilabete zituela jaso zuen lehen saria Valladoliden, nazioarteko erakusketa batean. Hamaika hilabeterekin, Donostian, nazioarteko beste erakusketa batean, Groenendael arrazako lehen txakur gazte izendatu zuten.

Hamabost, hamasei eta hamazazpi hilabete zituela, Iruñea, Valladolid, Madril eta Bilboko erakusketetan, beste sari batzuk ere izan zituen. Hamazortzi hilabeterekin, Espainiako txapeldun izateko puntu guztiak zituen eta titulua, 1997ko uztailaren 20an lortu zuen. Urte berean, abuztuaren, Orleansen (Parisen) izan ziren eta bertan,



Stiff Groenendael arrazako artzai txakurra dugu.

aurkeztutako 100 txakurretatik 16.a izan zen.

Edertasuna baloratzen den lehiaketetara joan ohi dira. Mota honetako txapelketetan ez dago txakurrari agindurik ematerik. Pertsona batek txakurra ateratzen du eta epaileak ikus dezan, postura batean jartzen da. Txakurra geldi eta ixilik egon dadin, etxeok ez ikustea komeni izaten da eta horretarako kanpoan gelditzen dira jabeak. Zaunkadak gainera zigortu egiten dira.

Nazioarteko txapelketak izaki, Europako hainbat lekuetatik aurkezten dira. Batzuk gainera, beraien nazioan irabazitako txakurra aurkezten dira, beraz, maila garrantzitsuko lehiaketak direla garbi dago.

Txakurraren egitura baloratzen da: Muturra, hortzak, belarriak, ilea...

Epaile bakoitzak balorazio ezberdina egin dezake. Horregatik, Espainiako txapelketa irabazteko bost txapelketa irabazteaz gain, Madrilera ere irabazi beharra dago. Guztietan epaile ezberdina egon ohi da.

Aurrerantzean, inguruko lehiaketetan parte hartzeko asmoa dute Izar-Gainekoek, Stiffekin. Orleanasera berriz ere joatea nahi lukete, hango lehiaketa gaitzear dago eta. Zortetik onena izan dezatela.

## MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Doña Maximina

OINETAKOAK OLAGARRIAK

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 724482

alejandra albisua

kirol gaiak

Soraluze 6  
☎ 72 52 22  
ZUMARRAGA

GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU



# Hamabost urte ondoren Bertso Eskolari agur esan dio Juanjo Sagastibeltzak

Juanjo Sagastibeltza aski ezaguna dugu herrian, egunero ikusten baitugu kalean udaltzain lanetan. Baina ez da hau herriarentzat egiten duen lan bakarra. Duela hamabost urte beste zenbait kideekin batera bertso eskola sortu zuen. Bere lanak

fruitu ugari eman du: herriko gazte ugari bertsoetan ikasteko aukera izan dute eta horrek herriko bertsozaleatasuna suspertu du. Hainbeste urte ondoren bertso eskolaren gidaritza utzi behar du, baina beti izango dute laguntzeko prest.

**Esaterik badago  
esango dut garbi  
bertso eskolak eman  
dit lagun ugari  
urte onak izan dira  
nola uka hori  
horregatik bihotzez  
eskerrak danori.**

( Juanjo Sagastibeltza )

**-Bertso eskolan hasi aurretik zein zen bertsolaritzarekin zenuen harremana?**

Ez nuen aparteko erlazorik, noizean behin irratian entzuten nituen bertsoak. Soldadutzatik itzuli nintzenean, ordea, telebistan eskolarteko lehenengo txapelketa ikusi nuen, bertan Jon Sarasua eta Xabier Euskitze zirelarik, eta oso deigarria suertatu zitzaidan. Ondoren, bertso mundua gertuagotik jarraitu nahian ikastolara jo nuen, bertso saioak ikusteko talde txo bat osatu asmoz; nire koadrilan ez zegoen euskal giro handiegirik.

**-Noiz eta nola bururatu zitzaizuen bertso eskola sortzeko ideia?**

Orain hamabost bat urte dagoeneko baziaren hainbat bertso eskola Gipuzkoan. Martxan jartzen lehenak Arrasate eta Goierriko eskolak izan ziren eta beranduxeago, Hernani, Oiartzun eta Zumaian ere agertu ziren bertso eskolak. Kontuan hartu behar da herri bakoitzean eskolaren arduradun gisa pertsona bat egon izan dela; esate baterako, Mikel Mendizabal



Juanjo eta Bertso-Eskolako lagunak Iñaki Beitiaren omenaldian

Goierriko bertso eskolan eta Juan Luis Dorronsoro Zumaiakoan. Guk garai hartan, Mikel Mendizabal ezagutzeko parada izan genuen. Hark, Goierriko bertso eskolaren eredia erakutsi, zenbait material utzi, eta Zumarraga-Urretxun ere antzeko zerbait sor genezakeela pentsatu genuen. Iñaki Beitia zenaren laguntza ere ezinbestekoa izan zen.

**-Bertso eskolaren lehen momentu haieztatik gaur egungo egoerara, desberdintasun handiak nabari al dituzu?**

Bai, asko aldatu da. Bertsolaritzak berak aldaketa nabariak izan ditu azken urteetan eta era berean, bertso eskoletan ere aldakuntza nabariak izan dira. Orduko giroa, hastapeneko, giro sanoagoa zen. Jendeak lana musutruk egiten zuen, gaur egun,

ordea, hori galdu egin da. Beste hainbat alorretan bezala, kirolelan adibidez, monitoreei ordaindu egiten zaie; hau onerako eta txarrerako da. Baliabideak hobetu egin dira, baina sanotasuna galdu da.

**-Bertso eskolek balio al dute bertsolariak ateratzeko, edo berezko zerbait izatea beharrezko da?**

Bertso eskoletatik bertsolariak atera izan dira. Baina, bertso eskolaren laguntzaz gain benetan ezinbestekoa dena, afizioa izatea da. Adibide garbia. Jon Maiarena dugu; bera bertso eskolako produktua da neurri handi batean, baina, bere lan pertsonala ere handia izan da bertsolari bilakatu ahal izateko. Bestalde, bertsolari gazteei astindu ederra ematea ez zait onegia iruditzen. Horiek, erreta amai dezakete.



**-Zumarraga-Urretxuko gazteen artean zein maila ikusten duzu?**

Kontuan izan behar da bertsolariak atera diren herrietan, lehen aipatu dugun moduan, beti izan dela pertsonaia konkreturen bat gazte horien atzetik. Hori dela eta, bertsolariarekin lotuagoak egon diren herrietan bertsolari gazte gehiago atera dira. Baina, guk ere gure bidetxo egin dugu, eta bakar batzuk pasatu dira bat-batean kantatzera ere.

**-Momentu honetan zenbat dira Zumarraga-Urretxuko bertso eskolan dabiltzan gazteak?**

Bi talde nagusi bereiz genitzake. Batetik, 12 urte inguru dituzten hamar bat lagunek osatzen duten taldea legoke. Talde hau, Ikastolako eta Gainzuriko gazteek osatzen dute. Bat batean jarduten dutenak, aldiz, sei lagun dira: Antxon Fernandez, Nerea Elustondo, Gorka Azkarate, Gorka Ojanguren, Asier Iriondo eta Asier Otamendi. Hauek guztiak dira egindako lanaren fruituak. Esate baterako, edozein ekitaldi ospatu behar zela eta, lehen kanpora joan behar izaten zen bertsolari bila; gaur egun zulo hori gazte hauek betetzen dute.

**-Zuri zeuri, zer eskeini dizu bertso eskolak?**

Hasiera batean, herriz-herri bertsoak jarraitzeko koadrila bat. Ondoren eta denboraren poderioz, jendearekin harreman onak, lagun asko eta giro aproposa. Baita momentu txarren bat ere, eh!

**-Zer hobe liteke bertsolaritza munduan orokorrean?**

Bertsolarien Elkarte aurrera doan heinean, bertsolaritza ere halaxe joango da. Bertsolaritza, gizarteak jasan dituen aldaketak jasan izan ditu eta beraz gizartearekin batera aldatuz joan da; etorkizunean ere hala joango da.

**-Nola ikusten duzu etorkizuna bertso eskolan?**

Bere erritmoan, poliki-poliki, bere bidea egingo duela iruditzen zait. Bide hori egiten lagun dezaketen eta orain arte ere egin izan diren hainbat ekintza polit badira. Adibidez, Goierri eta Tolosaldeko eskolekin batera, Tolosatik Legazpi arteko elkarteei gutun bat bidali eta hauetan bertso afariak egin izan ditugu. Hau bertsolari gazteentzako ekin -

tza aberasgarria gerta liteke, urtean zehar izaten ez duten aukera ematen baitie bertsoan aritzeko. Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zait Santa Lutzitan egiten den saioa mantentzea, hau zerbaiten adierazgarri izaten baita.

**-Bertso munduarekin harreman estua izan duzun urte guztietan hauetan bildutako bitxikeriaren bat izango duzu kontatzeko...**

Gogoratzen dut orain dela urte batzuk, gai jartzaile moduan aritu nintzela Agiñako festetan ospatu zen bertso saio batetan. Bertan lau bat bertsolari izango ziren, tartean Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Saioa hasi aurretik dagoeneko gauza harri-garri xamarra gertatu zen; udaltzainak jarri behar izan zituzten trafikoa zuzentzen han bildu zen jendetza zela eta.

Baina onena saioa amaitu ondorengo izan zen, 50 pertsona inguru bildu baikin, bertsolariak tartean, auzoan zeuden bi tabernetan. Denak batera eta kantari. Hura, giro itzela zen, benetan sanoa. Askotan, halako herri txikietan izan ohi da girorik onena.

**Bertso eskolako ikasleen agurra Juanjori:**

**BERTSOa zen mamia  
ESKOLA azala  
nork daki zenbat urte  
hasi zinala  
langilea, jatorra,  
argia, leiala  
eta bertso kantuan  
etzinen makala  
nahi zendun bezala  
zure diosala  
heldu zaigu hala  
hauxe da tamala  
oso goxoa baitzen  
zure itzala. (bir)**

*Betroiarena doinua*

**Gaztetatikan, bertso eskolan  
irakaslean papera  
gero afari eta juergetan  
zein adiskide itzela!  
baina batipat, ikusten dugu  
lagun handi bat bezela;  
gaur badakigu, gu bertsolari  
zuregaitikan garela  
eta bertso hau neurri batean  
zurea era badela.**

**CHIARA**  
Etixerako lentzeria  
Oparitarako gaiak  
Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18  
Madaia plazoletan  
20700 URRETXU

**TABERNA**  
*Jatorretik*  
**JATETXEA**  
Piedad kalea, 14 ☎943 720819  
ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

**belar zain**  
Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura  
Labeaga, 31 ☎943722780  
URRETXU

*foto luz*  
*Argazkilaria*  
Legazpi, 5 ☎ 72 11 55  
Zumarraga  
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81  
Urretxu  
Kale nagusia, 5 ☎ 73 04 19  
\* ZURE ESTUDIOA \* Legazpi

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU  
  
**OSINALDE**  
KRUASANDEGIA  
TABERNA  
S. Esnaola, 26 ☎943720306  
ZUMARRAGA



# “Lasterketen mundu honetan baino gezurri gehiago leku gutxitan aurki daiteke”

Urriko egun hauetan Mugitegi industri aldeko inguru korrikalariz gainezka azaldu zaigu. Nabari da urteko lasterketarik garrantzitsuena gertu dutela inguruko lasterkariek. Azaro hasieran ospatzen den Behobia-Donostia herri lasterketa ezagun eta arrakastatsua da. Iaz 11.000 partaide inguru bildu zituen eta aurten ere honelako partaidetza duen lasterketa antolatzeak sortzen dituen arazoak direla eta, kopurua mugatzea erabaki dute antolatzailerak.

Urretxu-Zumarragatik 50 pertsona inguru joaten

dira urtero. Batzuk egun honetarako soilik prestatzen dira, festa egun honetaz gozatzeko; beste batzuk, ordea, urte osoan zehar entrenatzen aritzen dira lasterketa ezberdinetan parte hartzeko. Jesus eta Aitor Lizarazu, “Beni” eta “Txiki”ren helburu nagusia azaro amaierako Donostiako maratoia den arren, Behobia-Donostian ere parte hartuko dute. Beste lagun batzuekin batera gogor prestatzen ari dira eta egunero aritu dira Mugitegin urriko euri zaparradei aurre eginez.

## -Noiz hasi zineten korrikan?

Gehienok 5 urte inguru daramatzagu, baina ni (Txiki) zaharragoa naiz eta beraz urte gehiago daramatzat. 21 urte nituela maratoi bat ere korritu nuen, gero korrika egiteari utzi nion eta duela urte batzuk berriro hasi nintzen. Korrikan hasi baino lehen saskibaloian jokatzeko nuen.

Aitor eta biok (Jesus) 6-7 urtetan sokatira arituak gara eta Euskadiko txapelketan ere parte hartu genuen. Sokatira utzi genuenean juerga gehiegi egiten ari ginela konturatu eta beste kirolen bat egitea erabaki genuen. Pisua hartzen ari ginen, geure burua baldartua somatzen genuen eta korrikan hasi ginen. Ni (Beni) korrikan hasi baino lehen eskubaloian aritu nintzen.

## -Nola ezagutu zenuten elkar?

Beno, gehienok errepidean elkar ezagutu genuen, korrika egiten. Peio Plazaola, Karlos Mujika eta ni (Jesus) elkarrekin hasi ginen, baina besteak bakarrik. Entrenatzen ari ginela elkarrekin topo egiten genuen eta lasterketetan ere bai. Honela, lasterketari eta prestaketei buruz hitz egiten, elkar ezagutzen hasi ginen. Pixkanaka elkarrekin prestatu eta lasterketetara joaten hasi ginen. Egund 7-8 lagun inguru biltzen gara, baina lasterketetara gehiago ere joaten gara elkarrekin.

## -Asteaz zenbat egunetan entrenatzen duzue?

Azkenaldi honetan Donostiako maratoia prestatzen ari gara eta beraz egunero joaten gara korrika egitera, baina urteko gaitzazko asteetan hiruzpalau egunez aritzen gara. Gehien entrenatzen dugun egun-



Diego Gartzia bezala, Santi Pérez urretxuarra dute prestatzaileak.

netan 20 kilometro egiten ditugu. Dena den, batez-beste 14-16 kilometro egin ohi ditugu. Askok aritzen gara, baina entrenamenduak zainduak dira. Santi Perezek, Diego Gartzia prestatzaileak, taula batzuk eman dizkigu eta hauek jarraitzen ditugu. Santi ezagutu aurretik ero moduan aritzen ginen: egun batean azkar ibiltzen baginen, hurrengoan lasterrago ibili nahi genuen. Etxera hankak txikituta heltzen ginen. Gero eta azkarrago korritu nahiak ibili ezina zekarren. Orain, berriz, gorputza zaintzeaz gain, errendimendu hobea lortzen dugu. Lehen gorputza izugarri zigortzen genuen eta honek somatu egiten zuen. Azkenean

Mugitegira joan eta hamar bira eman beharrean lehenengoan jada leherturik geunden.

## -Ez al da aspergarria hainbeste ordutan korrikan aritzea?

Ezagun askok gauza bera esaten digu. Nik (Aitor) ere gauza bera nion hasieran. Bakarrik ari bazara aspergarria izan daiteke, baina beste batzuekin arituz gero edo lasterketa ona eginez gero motibazio handia sortzen da.

Gero kronometroan erloju bat erosi eta honek jada zeharo lotzen zaitu. Lehenengo urtean ez duzu hobekuntza handirik somatzen, baina hobetzen zoa-



zen heinean ezin diozu jarraitzeari utzi. Elkarrekin ibiltzeak arinagoa egiten du entrenamendua, hizketan joan gaitezke eta honela, ez aspertzeaz gain, buruhausteak uxatzen ditugu. Hau oso garrantzitsua da, egunero ordubete baino gehiago aritu arren, ez baita hain neketsua egiten. Bestalde, askatasun handia ematen duen kirola da. Ardura bakarra geure buruarekiko da eta marka hobetzea da helburua, lehia bera gure buruaren aurkako soilik da. Sokatiran genbiltzanean, gaizki arituz gero, talde osoari egiten genion kalte eta erantzukizun handia zen (Jesus).

### **-Baina entrenatzeko soilik ez omen zarete elkartzen...**

Noski! Hilabeteak ematen ditugu maratoia prestatzen eta gero bukatutakoan bada... ospatu beharra dago. Iaz, maratoia egin ondorengo hilabetean hiru parranda egin genituen, afari eta guzti. Gainera, hainbeste zaindu ondoren, gehiago gozaten ditugu. Arazo txiki bat izaten da: juergan gabiltzala berotu egiten gara eta apustuak egin ohi ditugu hurrengo lasterketarako. Aurtengo maratoian, ohoreaz gain, zenbait arkume ere jokoan ditugu.

### **-Baina maratoiaren aurretik Behobia-Donostia duzue.**

Hasieran lasterketa hau korritzeko soilik prestatzen ginen eta honetarako aski zen aurreko asteetan entrenatzearekin. Ondoren beste lasterketa batzuetan hasi ginen, gero maratoiarekin, eta honek urte osoan zaintzea dakar. Dena den, inguruko korrikalarion urteko ospakizun nagusia Behobia-Donostia da. Herri mailan sustraitua dagoen lasterketa da eta ezagunak hurrengo egunean sailkapenean gure postua bilatzen aritzen dira. Gainera urteko sasoi honetan askoz ere jende gehiago aritzen da korrikan lasterketa hau prestatzeko. Lehenengo aldiz bertara joan ginean, izugarria iruditu zitzaigun. Hamar mila pertsona elkarren ondoan korrikan hasteko prest ikusteak txunditu egin gintuen. Gainontzeko lasterketetan 200-300 pertsonak soilik parte hartzen dute eta beraz aldaketa oso handia da. Nahiz eta 20 kilometro izan, 10 kilometro dituztenak baino errazago egiten da. Behobiatik ateratzen garenetik Donostiaraino norbait ondoan dugula korrika egiten dugu eta gainera bide bazterrek ere jendez gainezka egoten dira, denak korrikalariak animatu nahian. Ikusleak ia zorabiatzen dira, hainbeste jende aurretik korrikan ikustean. Nire emaztea (Txiki) zazpi aldiz joan da ni



Carrasco, Txomin, Karlos Mujika, Joxe Lizarralde, Jabi Elgarresta, Beni, Jesus Lizarazu, Peio Plazaola, eta Aitor Lizarazu duela hiru urteko Behobia-Donostia lasterketa hasi aurretik.

ikustera eta oraindik ez du behin ere lortu ni ikustea.

Lasterketa hau, gainera, lehiaketa baino gehiago festa da. Euskal Herriko korrikalari ia guztiak elkartzen gara eta kanpotik ere jende asko etortzen da. Horretan iparraldekoek eta frantsesek zeresan handia dute. Lasterketa jai giroan burutzen dute, ez dute denbora kontuan hartzen eta ondo pasatzera joaten dira: mozorroturik, korrikan doazen bitartean builaka... Guk, berriz, nahiko serio hartzen dugu denbora kontua; gainera ezagun guztiek hurrengo

## “Buruarentzat oso gogorra da hiru ordu jarraian korrikan aritzea”

egunean sailkapena begiratzen dutenez...

### **-Behobia-Donostia korritu ondoren, berriz, maratoia duzue.**

Bai, gehienok iaz korritu genuen lehenengo aldiz. Nik iaz nahiko ondo egin nuen (Jesus), baina egia da oso gogorra dela. Arnasa ondo mantentzen da, baina hankak pixkanaka indarra galtzen joaten dira eta azkenean sentitu ere ez dituzu egiten. Buruarentzat ere oso gogorra da hiru ordu jarraian korrikan aritzea. Oso garrantzitsua da ondoan norbait eramatea. Nik iaz Jongu neraman ondoan, bizikletan. Edaria

pasatzen zidan eta gainera animuak ematen zizkidan, txisteak kontatu... Honek burua lasaitzen laguntzen du, ez duzu hainbeste pentsatzen lasterketan eta jasangarriagoa egiten da. Nik iaz 2 ordu eta 49 minututan egin nuen maratoia (Jesus). Nik 3 ordu eta 3 minututan (Beni). Nik (Txiki) aspaldi korritu nuen maratoia, gaizki prestatua nengoen eta ez nekien maratoia korritzea zein gogorra izan zitekeen. Honelako lasterketa gogorrean garrantzitsuena arazorik gabe bukatzea da. Denbora bat egiteko entrenatzen dugu eta urtetik urtera denbora hori hobetzea da helburua, noski. Dena den, lasterketa mundu honetan baino gezurti gehiago leku gutxitan aurkitu daiteke. Lasterketa hasi aurretik denek ez dutela batere entrenatu, gaizki dabilzala... esaten dute. Gero, lasterketa hasi eta ziztu bizian ateratzen dira. Guk uste hau lasaiago aritzeko esaten dela. Izan ere, nahiz eta lasterketa ondo prestatu egun txarra izan eta gaizki ateratzea gerta daiteke.

### **-Etxean ulertzen al dute zuen zaletasun hau?**

Ni (Txiki) aurten gehiegitxo prestatu naiz. Bi urteko haurra dut eta orain da berarekin gozatzeko une egokia. Azkenaldi honetan lana eta entrenamendua direla eta, oso denbora gutxi izan dut berarekin egoteko. Dena den, maratoia egin ondoren lasaieago hartuko dut korrika kontua eta familiarrentzat denbora gehiago izango dut. Gure amak (Aitor eta Jesus) euria ari duen egunetan lanetik bueltatu eta korrika egitera joatea ez du oso normaltzat hartzen.





## Esteban Barrena Txistularia

**✓Zer izan nahi zenuen umetan?**

Lehendabizi gizona, gero apaiza.

**✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?**

Beroarekin hasi eta hotzarekin bukatu.

**✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Elizako lanak egitea.

**✓Ze operari hartuko zenuke gustura?**

Ez naiz operari zalea.

**✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?**

Aita Santua.

**✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?**

Gehiago nekatzeko.

**✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?**

Ezer ez.

**✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?**

Begietara.

**✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?**

Zine bat.

**✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?**

Antio.

**✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?**

Hondarribian.

**✓Zein da duzun ohiturarik okerrenea?**

Burugogorra izatea.

**✓Bete gabeko amets bat?**

Bakea.

**✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?**

Entzuteko.

**✓Kantu bat.**

Iparragirrenen zortzikoak.

**✓Zain egon ala besteak zure zain?**

Ni oso puntuala naiz.

**✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?**

Bizitza.

**✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?**

Familiarengatik .

**✓Gaua ala eguna?**

Eguna.

**✓Lo egiteko zer?**

Logurea.

**✓Gustuko janari bat?**

Indabak.

**✓Ura, ala...**

Ardoa.

**✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?**

Bidaia Erromara.



**URRETXU**

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

**PUBLIZITATEA**

☎ 72 57 75





● Sorpresarik ez dizudala ematen gehienetan kezu zaren arren, hementxe duzu bat. **Zorionak!**



● Urteak aurrera doazen arren, urte askotan segi hirean: Armando jaleo. **Zorionak Armando** eta urte askotarako!!



● **Zorionak Nerea** etxekeen partetik. Bada garaia 17 urterekin Freddy Kruger utzi eta benetako mutila aurkitzeko.



● Oraingoan ere adarra jotzen ari-tuko haiz! Herriko neska kaltetuen partetik: **Zorionak Mitxel!!!**



● **Zorionak Esteban!** Segi elizan lan eta lan, baina Zumardiko partidatxoa ahaztu gabe.



● **Begoña**, hona gure partetik zorionik serioena: beste horrenbeste bete ditazula. **Zorionak!!**



● Hire bihurrikeriak askotan gurutzea diren arren, ez hadi inoiz aldatu. **Zorionak Gurutz!!!**



● Urriko aleko aurpegiarik politena, nola utzi zoriundu gabe? **Zorionak Irati zure lehen urtebetetzean**



● Bihurri aurpegi horrekin, ez daki-gu jaunartzea egi-ten utziko dizun Aintzanek. **Zorionak Joseba!!!**



● **Laida, Laida...** zure izena entzute hutsak dantzan jartzen gaitu. Zorionak eta ea txokolatadara gonbidatzen gaituzun



● Semearen ilea-paindegiko faktura iristen denean ere jarraitu umore berberarekin **Zorionak Maite!!**



● Trikiti doinuak dioen bezala... **Maria Jesus** bihotzekua, horrela jarrai ezazu. **Zorionak!!!**



● **Maritxu** nora zoaz eder galant hori... Bartolo ez dakit baina gu, gustura joango ginateteke zure urtebetetze festara.




● **Ai Naiara, Naiara**, zu ere emakumetzen hasi zara! **Zorionak eta segi irrifartsu!**




● **Sandra, Sandra** horrelako jertseekin kontuz ibili, laster bonbonak banatzen ikusten zaitugu eta. **Zorionak!!!**



● **Aupa Asier!** Gogor entreatuz Albertoren hurrengoia izango zara. Baina ez ahaztu zure neska lagunak.




● Aupa morroxko. Hik bai hik harrija-sotzaile planta eta Leitzakoa izan gabe. **Zorionak Urtzi!!!**



● **Ai Xabier!** begi gorri horiekin banpiroa ematen duk! **Zorionak** eta ez egin koxka inori.



● Oraingoan ere elkarrekin azaldu behar. Baina non utzi nauzue ni? Espero dut abenduan nitaz ez ahaztea. Nagore, Txurtxil eta bere txakurkume guztien partetik, **Zorionak Teresa eta Mirari!!** (ea gonbidatzen gaituzuen).



● **Maikel Gross:** igerilari ona omen haiz, baina kontuz ibili hadi igerileku-ko marrazoekin. Zorionak azken hauen partetik!!



● Bodegara joateko gazte xamarra ez al haiz? Eta Asierren botilak non zeudek? **Zorionak Iñaki!!** familia eta neska lagunaren partetik



● **Zorionak, Jone,** hiru urte betetzean zure aita, ama eta sendi guztiaren partetik musu handi batekin batera.



● **Zorionak Aurora** Urretxuko kuadrilaren partetik eta urte askotan irrifartsu eta alai jarrai ezazu.



# *asirauto*



**Bigarren eskuko autoetan  
aukera zabala**



**Mugitegi industrialdea URRETXU**

**☎ eta faxa 943 72 59 22 Mugikorra 908 67 89 79**